

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Ondasun higiezinaren gaineko 2016ko zerga borondatezko epean ordaintzea

Consuelo Auzmendi Jiménez, Asparreneko Udaleko alkateak

jakinarazten du 2016ko urriaren 3tik abenduaren 3ra bitarteko egun baliodunetan, bi horiek barne, ordaintzeko moduan egongo direla, borondatezko epean, landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2016ko ordainagiriak.

I. Ordaintzeko epea.

a) Borondatezko epea: 2016ko urriaren 3tik abenduaren 3ra, egun biak barne.

b) Premiamendu aldia: 2016ko abenduaren 4tik aurrera, administrazio premiamenduko betearazte bide administratiboa abiarazita eta dagokion errekargua aplikatuta (otsailaren 28ko 6/2005 Foru Araua, Arabako zergen orokorra, 28. artikulua).

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

a) Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin behar, helbideratze kontu berbera mantentzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

b) helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenean Udalaren diruzaintzan (udal bulegoak, Herriko enparantza, 1. Araia) ordaindu ahal izango dute borondatezko epean, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara. Era berean, udal honek Vital Kutxan, Laboral Kutxan eta La Caixan dauzkan kontuetako edozeinetan egin ahal izango dute ordainketa.

III. Gomendioak.

Banku helbideratzeetako altak edo aldaketak eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Asparreneko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2016ko irailaren 16a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ